

5. ildo: AISIALDIKO BEGIRALE ETA ZUZENDARI AGIRIA LORTZEKO EUSKARAZKO IKASTAROETARAKO DIRULAGUNTZAK

1. ZER DA DIRUZ LAGUNDUKO DENA

- Aisialdiko begirale agiria lortzeko ikastaroak.
- Aisialdiko zuzendari agiria lortzeko ikastaroak.

2. BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Getxon erroldatuta egotea.
- Ikastaroek euskaraz beharko dute izan eta eskatzaileak horretarako, hau da, ikastaroa jarraitu ahal izateko behar den euskara maila egokia beharko du izan.
- Eusko Jaurlaritzak homologatutako ikastegiak eman behar dituzte ikastaroak.

3. ORDAINKETA MODUA

- Baldintzak betetzen dituztenei ikastaroaren %50erainoko dirulaguntza emango zaie. Agiria lortzeko ikastaroak bi ikasturtetan egiten dituztenei ikastaro bakoitzarengatik %50erainoko laguntza emango zaie.
- Eskaerak aurkeztu ahal izango dira baina derrigor eskaera aurkezten duenean eskatzaileak ikastaroa amaitua behar du izan eta Jaurlaritzaren agiri ofiziala duela ziurtatu.
- Jaurlaritzaren agiri ofizialak 2020-2021 edo 2021-2022 ikasturteetan lortutakoa beharko du izan; ez da onartuko aurreko ikasturteetan (adibidez, 2019-2020 ikasturtean) lortutako agiriarengatik eskaerarik.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

4.1.- Dirulaguntza eskaera

Dirulaguntza eskaera - Euskara Zerbitzua izeneko inprimakia beteta (ikus eranskina), kontu korrontearen zenbakia (**IBAN kodeari dagozkion 24 digitu**) jasota utziz.

4.2.- Gastuen ordainagiriak

Matrikula-gastuen **jatorrizko ordainagiriak**.

4.3.- Titulu ofiziala

Eusko Jaurlaritzak luzatutako aisialdiko begirale edo zuzendari agiri ofizialaren kopia.

Zerga betebeharrak egunean izatea: eskatzaileak besterik adierazten ez badu, Getxoko Udalak ofizioz ikuskatuko du eskatzaileak ez duela zorrik Gizarte Segurantzarekin, Bizkaiko Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin.

Eskatzaileak kontsulta hauen guztiak edo zati batzuk ikuskatzearen kontra dagoela adierazi ahal du eskaera orrian bertan. Aurka dagoela adierazten badu eskaera elektronikoan erantsi beharko ditu eskatzen zaizkion dokumentuak.